

# Azterlana akuikulturako arrainetan Anisakisaren presentziari buruz 12/02/24

APROMAR Espainiako haztegi-arrain ekoizleen enpresa-elkartek "Evaluación de la presencia de nematodos del genero *Anisakis* en los pescados de acuicultura marina españoles" izeneko azterlana egin du 2010. eta 2011. urteen artean. Horretarako, Elikagaien eta Nutrizioaren Zientzia eta Teknologia Institutuaren, Zientzia arloko Ikerketen Goi mailako Zentroaren (CSIC) eta Valentziako Komunitateko Akuikulturaren Osasuna Babesteko Elkartearen (ADS ACUIVAL) laguntza jaso du.

Azterlan horren helburua zen erakustea akuikulturako sistema kontrolatuen bidez hazitako arrainetan ia ez zegoela *Anisakis* parasitorik.

Azterlanaren ondorioak otsailaren 23an aurkeztu zituzten Cadizen egindako mintegian. Garrantzitsuena honako hau da:

**- Espainian akuikulturako sistema kontrolatuen bidez hazitako arrainetan *Anisakis*aren presentzia oso txikia da, ez dagoelako parasitorik arrain horiek hazteko gatibutza-baldintzetan eta ematen zaizkien elikagaietan.**

Azterlan honen eta Europar Batasunean gauzatzen ari diren beste azterlan batzuen helburua da ez behartzea jatetxeak akuikulturaz hazitako arrainak izoztera gordinik jan aurretik.

APROMARen web-gunea (<http://www.apromar.es/>)  
**ELIKA** Granja Modelo, 2/g. 01192 . Arkauté (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
Anisakisari buruzko informazio interesgarria ([https://www.elika.eus/consumidor/es/ficha\\_destacados.asp?id=3](https://www.elika.eus/consumidor/es/ficha_destacados.asp?id=3))  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)